

4. gaia: adjektiboaren azterketa

- **Irakurgaiak:** Artiagoitia (2008: 3. kap., 1-11 orr.) + EGLA liburuko 5. kapitulua

1. Terminologiatik harantzago: adjektiboak kategoria dira, ez funtzioa 1

2. Adjektiboen sailkapena 2

- 2.1. *Adjektibo erlazionalen ezaugarriak eta sailkapena 3*
- 2.2. *Adjektibo kalifikatzaileen eta erlazionalen arteko marra lausoa 4*
- 2.3. *Adjektibo erlazionalak eta hitz elkarketa 4*

3. Adjektiboaren banaketa edo testuinguruak 5

- 3.1. *Adjektiboa IS barruan: I + Adj + D 5*
- 3.2. *Adjektiboa predikatu osagarri modura 5*
- 3.3. *Adjektiboa adberbio huts modura 7*

4. Adjektiboaren mailakatzea eta konparazioa 7

- 4.1. *Mailakatzea 7*
- 4.2. *Konparazioa 8*
- 4.3. *Mailakatzaile-determinatzaileekiko murriztapenak 9*

5. Zenbait ustezko adjektiboren auzia 9

- 5.1. *-dun egiturak 9*
- 5.2. *-(t)ar atzizkidun adjektiboak 10*

1. Terminologiatik harantzago: adjektiboak kategoria dira, ez funtzioa

►EGLA liburuak (cf. 115-6 or.) ikuspegia funtzionalista hartzen du adjektiboaren definizioan, eta izena modifikatzen duen orori esaten dio *adjektibo*. Azpimarratutakoak adjektiboak lirateke hartara:

- (1) a. {mendi(ra)ko, udarako, leku guztietako} bizikletak
b. {ikaslearen, nire lagunen} bizikleta
c. bizikleta gorri-a, bizikleta eder bat, bizikleta berri hau

Lehen gaian azaldutakoaren haritik, guk kategoria eta funtzioa bereziko ditugu; beraz, goian azpimarratutakoek funtzio berdina parteka dezakete, baina ez dira horratik tankera bereko egiturak:

b. goxoago, goxoen, goxoegi, ...

► Baina hainbat adjektibok ez dute (b) tankerako testa pasatzen:

(9) a.?? Gure ama *franko finlandiarra* da.

b.?? neska *oso finlandiar* hori...

→ adjektibo hauei *adjektibo erlazionalak* (edo *erreferentziadunak*) esaten zaie.

Beraz, adjektiboak honela sailkatuko ditugu:

- adjektibo kalifikatzaileak edo nolakotasunezkoak
- adjektibo erlazionalak:
 - tematikoak
 - sailkatzaileak

2.1. Adjektibo erlazionalen ezaugarriak eta sailkapena

a. Adjektiboak izan arren, ez dute konparazio atzizkirik edo mailakatzailerik onartzen;

b. ezaugarri bat eman beharrean, informazio bat ematen digute;

c. eskuarki, izen batetik eratorriak dira (baina eratorriak izateak ez dakar nahitaez erlazionalak izatea);

d. asko eta asko maileguak dira edo bestela *-(t)ar* atzizkiaren bidez eratorriak dira (baina maileguak edo *-(t)ar* atzizkidunak izateak ez dakar nahitaez erlazionalak izatea):

- (10)
- | | |
|---------------------------------|------------------------|
| a. krisialdi <i>ekonomikoa</i> | (ekonomiko < ekonomia) |
| b. eraso <i>frantziarra</i> | (frantziar < Frantzia) |
| c. errefuxiatu <i>siriarrak</i> | (siriar < Siria) |
| d. garraio <i>publikoa</i> | (publiko < herria) |

- (11)
- a. ?? krisialdi nahiko ekonomikoa
 - b. ?? krisialdi hau ekonomikoa da hirurogeita hamarkadako baina
 - c. ?? eraso guztiz frantziarra

● Adjektibo erlazionalen artean, *sailkatzaileak* eta *tematikoak* bereizi ohi dira:

➤ **sailkatzaileak:** modifikatzen dituzten izenen sailkapena egiteko erabiltzen ditugu; sailkapen-irizpide tipikoak *toki-jatorria*, *alorra*, *denbora*, *xedea*, *iturria*, *helburua*, *bitartekoa*, *kausa* izaten dira:

- (12)
- | | |
|---------------------------|--|
| a. errefuxiatu bosniarrak | (Bosnia = errefuxiatuen jatorria) |
| b. energia nuklearra | (atomoaren nukleoa = energiaren iturria) |
| c. hondakin industrialak | (industria = hondakinen iturria edo kausa) |

- d. kontratu laborala (lana = kontratuaren helburua)
 e. arazo gramatikala (gramatikala = arazoaren iturria, jatorria, kausa)

➤ **tematikoak:** hauek modifikatzen duten izenaren *subjektu- edo osagarri-funtzioa* adierazten dute; *jabea* edo *posesiboa* ere bai:

- (13) a. erreforma konstituzionala = konstituzioaren erreforma (konstituzioa erreformatzea)
 b. erabaki judizialak = epaileen erabakiak (epaileek erabakitzen dute)
 c. aldaketa soziala = gizartearen aldaketa (gizartea aldatzen dute)
 d. kategoria gramatikalak = gramatikaren kategoriak (gramatikak dituenak)

▶ Adjektibo berak, erabileraren arabera, bi balioak (sailkatzailea eta tematikoa) izan ditzake:

- (14) teoria darwindarra = tematikoa edo sailkatzailea izan liteke
 a. Darwinen beraren teoria (tematikoa)
 b. teoria mota bat (Darwin iturritzat duena, Darwinek inspiratutakoa)

2.2. Adjektibo kalifikatzaileen eta erlazionalen arteko marra lausoa

▶ Sailkapen bat egiteko erabiltzen den adjektiboari ezaugarri prototipikoak eransten zaizkionean, kalifikatzailea ere bihurtu daiteke:

- (15) a. Liburu hori *oso darwindarra* da (hots, oso Darwinen ideien estilokoa)
 b. Javier Clemente *oso bilbotarra* da baina ez da (egiazki) bilbotarra.

2.3. Adjektibo erlazionalak eta hitz elkarketa

▶ Adjektibo erlazionalen orde, sarritan euskarak bestelako baliabideak ere erabil ditzake:

- (16) a. eskola publikoa = herri eskola
 b. eraso mediatikoa = hedabideen eraso
 c. krisialdi ekonomikoa = ekonomiaren krisialdia, ekonomia krisia
 d. *conflicto lingüístico* = hizkuntz gatazka, hizkuntza(-)gatazka
 e. *literatura infantil* = haur literatura, haurrentzako literatura

▶ Argi bereizi behar dira, nolana ere, [izen + adjektibo erlazionala] egiturak benetako justaposiziozko elkarketetatik; bigarren hauetan, ezin da hitz elkartua desegin esanahia aldatu gabe:

- (17) a. sagardo naturala = sagardoa naturala da
 b. zoriona \neq zoria ona da; udaberri \neq uda berria da

3. Adjektiboaren banaketa edo testuinguruak

3.1. Adjektiboa IS barruan: I + Adj + D

• Adjektibo bi egonda, hurrenkera nahiko librea omen da EGLAren arabera, nahiz eta joerak kolorea izenetik hurrago kokatzea eta adjektiborik luzeena izenetik urrunago kokatzea diren:

- (18) a. herri txiki polita *zein* herri polit txikia
 b. kapela urdin zabala (arruntagoa-edo) / kapela zabal urdina
 c. ile argal horiska (arruntagoa-edo) / ile horiska argala

• autore batzuek halako hierarkia proposatu izan dute:

- (19) *Kualitatea > neurria > forma > kolorea > jatorria* (Sproat eta Shih 1991)
 (*izenetik urrunago > hurbilago* irakurri behar da)

Honen arabera, neutroagoak lirateke (20a) eta (21a) adibideak:

- (20) a. neska bilbotar argal bat (aldi berean bilbotarra eta argala den neska)
 b. ? neska argal bilbotar bat
 c. ardo beltz ona (aldi berean beltza eta ona den ardoa)
 d. ? ardo on beltza

• itxuraz, adjektibo erlazionalak kalifikatzailearen aurretik egon behar du (Zabala 1997):

- (21) a. eraso amerikar gogorra / garraio publiko ona
 b. ?? eraso gogor amerikarra / ?? garraio on publikoa

3.2. Adjektiboa predikatu osagarri modura

a. Aditz kopulatiboen osagarri (IZAN, EGON) agertu ohi da predikatu osagarria. Hori bai, adjektibo ez direnak ere izan daitezke predikatu osagarri:

- (22) a. liburu horiek merkeak dira b. Jon irakaslea da
 c. Aldare hori zilarrezkoa da d. Liburu hau irakaslearena da.
 e. Liburu horiek merke daude f. Jon irakasle dago Zarauzko ikastola batean

➔ Gaur egungo euskaran *izan* aditzarekin ohikoena predikatu osagarria artikuluduna izatea da; artikuluduna izatea ezaugarri iraunkorrekin lotu ohi da eta artikulurik eza ezaugarri iragankorrekin:

- (23) a. Amaia lasaia da (= *oro har* da lasaia)
 b. Amaia lasai da(go) (= uneko ezaugarria da lasaitasuna)

● *Izan* aditzarekin predikatu osagarria artikuluduna izateak salbuespenak ditu EGLAren arabera:

- (24) a. ni naiz lekuko, eta nerau epaile
 b. zoriontsu zara?
 (25) a. Ni ez naiz gai/gauza zuk diozuna ulertzeko
 b. Ados ginen geure asmoetan
 c. Jon hotz da ≠ Jon hotza da
 (26) a. on(a) da eskolatzea...
 b. harrigarri(a) da zein nekez ikasten duten batzuek...
 (27) a. etxe hau handia da, baina beste hura baino handiago(a)
 b. etxe hori handiegi(a) da zuretzat
 c. nik ikusi artzainetan zu zara ederren*(a)

b. Bestelako aditzen predikatu osagarri modura ere agertu daiteke adjektiboa:

● *iruditu, iritzi* ... aditzekin predikatu osagarria artikularekin ageri da eskuarki (*izan*-ekin bezala jokutzen du):

- (28) a. Jon *jatorra* iruditzen zait b. *Interesgarria* deritzot horri

● Aditz askorekin (cf. *izendatu, sumatu, hartu*...) predikatua artikulurik gabe joaten da eskuarki:

- (29) a. Edurne *lehendari* izendatu dugu.
 b. Jon *lasai* sumatzen dut
 c. *Sukaldari, dotore* ipini dute gure Jon
 d. *Preso* sartu dute Amaia

● *bihurtu, bilakatu, egin* bezalako aldaketa aditzekin, predikatu osagarria adjektiboa delarik artikularekin edo gabe joan daiteke gehienetan:

- (30) a. Anaiak *handi(ak)* egin ziren
 b. Ona zinen eta *gaizto(a)* bihurtu zara.

... eta izena delarik, predikatu osagarria artikulurik gabe erabiltzea hobesten da; baina izena ez ezik beste zerbait gehituz gero, artikulua erabiltzea da arruntena:

- (31) a. Ikatza *urre(??-a)* bihurtu zen.
 b. Hogeita bat urterekin, Atxaga *idazle(?-a)* bihurtu zen.
 c. Urteekin Atxaga *idazle profesional(a)* bilakatu da.

• (erabat aukerakoak diren) *predikatu adjunktuetan*, predikatua artikulurik gabe doa askotan, baina salbuespenak ere badira:

- (32) a. Jon *artzain/lasai* joan zen Ameriketara.
 b. Jon *dotore* etorri da eskolara.
- (33) Kafea *bero(a)* edaten/hartzen du horrek

3.3. Adjektiboa adberbio huts modura

- (34) a. Amaia *luze* mintzatu zen (*luze* = luzaro)
 b. Ariadnak *zintzo* jokatu zuen (*zintzo* = zintzoki)
 c. Gauzak *argi* azaldu dizkigute (*argi* = argiro, argiki)

4. Adjektiboaren mailakatzea eta konparazioa

4.1. Mailakatzea

- (35) a. Ariadna {guztiz, oso, nahiko....} aberatsa da.
 b. ?? Amaia oso zarautztarra da.

a. Mailakatze fonetiko (bustidura adierazkorra)

- (36) s,z → x; t → tt, tx;
 a. xoxoa, luxea, xamurra, Xebe, xuabe, Joxe...
 b. kuttuna, Mattin, Kattalin, ttantta, ...
 c. zerri / txerri, zakur / txakur

b. Mailakatze morfologikoa (tipigarriak eta bikoiztapenak)

- (37) beransko, gaztexko, ilunsko...
 Tipigarri ohikoenak: *-xe*, *-txo*

- (38) a. beste hau handixeagoa duzu
 b. neskatila beltzarantxo bat ikusi genuen
 c. adjektiboetatik kanpo ere bai: *gehixeago*, *gizontxo*, *nahikotxo*, *askotxo*, ...

bikoiztapenak:

- (39) a. polit-polita, goxo-goxoa,... b. bihotz-bihotzetik, bene-benetan, ...

c. Mailakatzaile sintaktikoa

- (40) oso, guztiz, biziki, txit, arrunt, arras, erabat, zeharo, gogorki, itsuski, anitz, franko, lar, sobera, ikaragarri, izugarri, itzel, ondo, ongi, hagitz, ...
- (41) a. **Ondo** gazterik hil zen gizajoa! b. **Ongi** tristea zen nobela hura!
- (42) a. **Oso** arazo larria b. Arazo **oso** larria
- (43) Etxe hau ez da **batere** polita

4.2. Konparazioa

• Superlatiboa

- (44) a. handi, erraz → handien, errazen
 b. lehen, aurren, azken, hurren
 c. Hau da udazkenaren fruiturik lehena
- (45) a. asko → gehien (“nagusi”)
 b. Biarnoko andre gehiena, hau dut seme gehiena
- (46) a. liburu berri politena erosi dute.
 b. liburu berririk politena erosi dute.
 c. {liburuetan, liburuetatik, liburuetarik} politena erosi dute.

• Adjektibo konparatiboak

- (47) a. Etxe hau *beste hura* baino ederragoa da
 b. Etxe hau ederragoa da *beste hura baino*.
- (48) Etxe hau beste hura baino
 a. {askozaz, hagitzez, biziki, aise, piska bat, ...} ederragoa da
 b. {lau bider, bi aldiz, ...} ederragoa

(49) a. asko → gehiago/ haboro (NB, Z) b. on → hobe (hobeago)

(50) a. bi kilo/lagun gehiago... b. ardo gehiago...

• **konparaziozko esapideetarako, ikus liburua (EGLA: 144-hh)**

(51) a. gero eta politagoa da nobela hau
b. geroago eta liburu zailagoak idazten omen ditu

• **gehegizko maila**

(52) txukun → txukunegi / lar txukun / sobera txukun

(53) asko → gehiegi / larregi / sobera (euskalkien arabera)

(54) a. Jantzi hau ederregia da zuretzat
b. Bart sobera ardo edan nuen Barrenkale Barrenan
c. Diru larregi irabazten du

• **Berdintasunezko konparazioa**

(55) a. Erronkari *Baztan* bezain ederra da
b. * Erronkari ederra da *Baztan* bezain

4.3. Mailakatazale-determinatzaileekiko murriztapenak

(56) a. * Oso mutil polit bat etorri da
b. * Mutil oso polit asko ikusi genituen hondartzan
c. * Liburutegian zegoen libururik handien hura hartu nuen

5. Zenbait ustezko adjektiboren auzia

(58) a. neska diruduna / dirudun neska
b. lagun zarauztarrak / zarauztar lagunak
c. arazo oinarrizkoa / oinarrizko arazoa

5.1. -dun egiturak

• batzuk izen argiak dira (=59), baina beste batzuek adjektiboak dirudite (60):

(59) euskaldun, eledun, txapeldun, zaldun, ugaztun, ...

- (60) a. biztanle euskaldun asko daude Bilbon.
 b. adiskide dirudunak ditu.
 c. emakume biboteduna.

• Zenbait hurrenkera ez dira espero izatekoak, baldin eta adjektibo badira:

- (61) a. euskaldun lasterkariak b. euskaldun jendea

- (62) begi urdindun haurra (Zabala & Odriozola 1994)

- itxura batean: a. **-dun** = postposizioa zenbait kasutan;
 b. **-dun** = *izen/adjektibo* kategoriako atzizkia

5.2. **-(t)ar atzizkidun adjektiboak**

• izenak ere sortzen ditu:

- (63) a. agirretarrak, lopeztarrak, ganboarrak, ...
 b. ondarrutar, lesakar, lapurtar, gasteiztar...
 c. baserritar, herritar, hiritar, ...

• oinarria = izen arrunta → **-(t)ar** atzizkidunek adjektibo argiak dirudite:

- (64) a. eskolaratze goiztiarra / ?? goiztiar eskolaratzea
 b. bertsolari kaletarrak / ?? kaletar bertsolariak
 c. poesia goitarra / ?? goitar poesia

• oinarria = izen berezia → **-(t)ar** atzizkidunek hurrenkera bi onartzen dituzte:

- (65) ondarrutar maisua / maisu ondarrutarra
- (66) a. bilbotar jendea / jende bilbotarra
 b. * **oso bilbotar jendea** / jende oso bilbotarra
 c. gazte jendea / jende gaztea
 d.* **oso gazte jendea** / jende oso gaztea

• azterbide bi eman izan dira:

- a. izenaren aurretik agertuz gero, [izen-izen] hitz elkartu bat izango genuke (ikus Artiagoitia 2002);
 b. **-(t)ar** adjektiboek, oinarrian izen berezia dutelarik, hurrenkera bi dauzkatela onartzea.